

ESKAKIZUNDUN LANPOSTUAK ETA LANPOSTU UZTEAK - 2015-11-10

Dirudienaren kontrara, administrazioak ez du zaintzen euskara, ezta euskara eskakizuna duten bitarteko langileak ere, bere interesak dira helburu bakarra, askotan sindikatuen oniritziarekin.

EJK egun berean agindu ditu lekualdatze lehiaketa orokorraren ondoriozko zeseak eta 2015erako betekizuneko lanpostuetan lan egin baina hizkuntza eskakizuna egiaztaturik ez duten langileenak. Erabaki hori hartu du sailak azken talde hori bakarrik gogoan duela: lekualdatze-lehiaketaren ondorioz hutsik geratuko diren plazak eskainiko dizkiete, zesatzearen jatorria bestelakoa izan arren.

Bien bitartean, lehiaketarekin lanpostua utzi behar dutenei ez dizkete eskaintzen 2015ean perfilaturik behar zuten plazak, euskara eskakizuna egiaztatuta badute ere.

Horrela jokaturik JAZ lortzen ari dena da langile guztiak lanpostu horiek kudeatzeko moduaren aurka jartzea, euskaldunak zein erdaldunak. Horrez gain, ezinikusi modukoa hasi da sortzen izendatu berrien kontra, errurik ez dutenen kontra, hain justu. Justizia sailak paratu ditu hor, jakinik, kasu askotan, plaza horiek betetzeko eskakizuna daukaten langileak lan-poltsetan gorago badaudela.

Argi esan zuen LABek aspaldi. Lan-poltsetan ordena errespetatzeaz gain bidegabekeriak saihestea lortzeko bide bakarra hau da: lehendabizi, araudian egindako azken aldaketak ezeztatu (erreskateak, lehiaketaren ondorioz huts geratutako lanpostuetan etorri berriak izendatzea...); eta bigarrenik, lan-poltsa bakarra osatu zeinek lanean diharduten langileei hobetzeko aukera emango baitie, zerrendaren ordenari erreparatuta, jakina.

Aurrekoetan esan bezala, beste administrazio batzuetan egiten da hori. Honetan datza: luzaroko lanpostua edo plaza hutsa betetzerakoan, beste lanpostuan dihardutela eskaintzen diete kontratua hobetu nahi dieten bitarteko langileei. Inork ez balu nahiko plazaz aldatu eskarmenturik ez duen baten bat izendatuko lukete. Horrela jokaturik, enpleguan egonkortasun handiagoa lortuko lukete bitarteko langile ugari eta pertsonal berriak pixkanaka-pixkanaka kontratu luzeagoak erdietsiko, jubilazioak, derrigorrezkotasun plazak... sortu ahala.

Berriro diogu: derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna ez dutenak eta lekualdatze-lehiaketa orokorraren ondorioz plaza utzi behar dutenak batera zesatzera behartuz, JAZek betekizuna ez dutenengan baino ez du pentsatu eta, aldiz, eskakizuna egiaztatuta dutenak baztertu ditu. Eta are gutxiago euskara gogoan hartu.

Aurrekoa esanda, ezin da onartu izendatu behar duten langile euskaldunei ordainaraztea JAZek eskakizundun plaza horiek hornitzeko erabili duen era penagarria, gehienak bigarren lan-poltsakoak izanik eskarmenturik ez dutelako. Erantzukizun osoa administrazioarena da. Dena den, gogorarazi behar dugu: inor ez da jaio jakitun eta guztiok –titularrek zein bitartekoe- hasierako egunak pasatu behar izan ditugu lanean. Era berean, esan beharra dago euskara jakite hutsak ez duela inor profesional eskasagoa egiten. Askotan entzun behar izaten dugun komentario iraingarria da hori, batez ere euskara ez dakiten eta jakin nahi ez duten pertsonen esanda. Haserrea sailera bideratu behar dugu eta jokabidea alda dezala saiatu.